



Javier Balza, Herrizaingo sailburua, atzoko agerraldian.

Gehienez 107 ertzain ariko dira aurten euskara ikastaroetan

1999rako 428 hizkuntz eskakizun zehaztu zituzten Barne Sailean

Luis Karlos Garcia / Gasteiz

Aurtengo zehaztutako 428 hizkuntz eskakizunetarako, 107 ertzain ariko dira gehienez ere Arkauten euskara ikastaroetan, osterantzekoek dagoeneko lortuta daukate-eta. Javier Balza Herrizaingo sailburuaren datuen arabera, erdiek hiru hilabetetan amaituko dute.

BALZA Eusko Legebiltzarreko batzordean agertu zen atzo goizean, PPko Carlos Urkijo parlamentarioak eskatuta. Eledun popularra «kez-kati» azaldu zen, Herrizaingo Sailak euskalduntzeko ikastaroetara aurten bidaliko duen ertzain kopurua bikoiztu nahi duelakoan.

Sailburuak zalantza guztiak desegin zizkion: «Ez da egia bikoiztu egin nahi dugu-

la». Beste era batera aritu zen Urkijoren ardura arintzeko: «Aurten, inoiz ez da egongo 107 ertzain baino gehiago euskara ikastaroetan».

Balzak gogora ekarri zuen bere garaian sindikatuek eta Administrazioak bat egin zutela 1999. urterako 428 eskakizun zehazteko: haietako 321ek badaukate dagoeneko, eta beraz, soil-soilik 107k jardun beharko dute

Arkauten. Gainera, sailburuaren ustea da ehun horietatik erdiek hiru hilabetetan bukatu ahal izango dutela.

1997ko abenduaren hondarrean Ertzaintzako Lanpostuen Zerrenda onetsi zen, eta Balzaren irudiko, hori «egun giltzarria» izan zen EAeko Polizia autonomikoaren euskalduntzeari dagokionez. Izan ere, une hartan sei hilabeteko epea eman zitzaion Barne Sailari lanpostuen profilak zehazteko. «Gaur egun prezeptibitateak zehaztuta daude, eta beraz, Administrazioak baliabide guztiak eskainiko ditu ertzain bakoitzak behar duen eskakizuna lortu ahal izan dezan», deklaratu zuen.

Borondatezko ikastaroetan aritu ziren gehienek proba gainditu zuten

■ 1997-98 ikasturtean 455 ertzain aritu ziren Arkauteko «borondatezko ikastaroetan», eta haietako gehienek (%80k) gainditu zuten azterketa. Hizkuntz eskakizunari buruzko azterketa egin eta ia denek gainditu zutela jaki-

narazi du kontseilariak. «Oso ratio onak dira, beharbada ikasketa prozesua bera ere eraginkorra delako», adierazi zuen Balzak.

Bestalde, joan zen urtarrilaren 11n hasi zen prezeptibitate aurretik zehaztuta duten

lanpostuen gaineko ikastaroa. Balzaren arabera, 109 ertzain aritu dira eta denek bete dute eskakizuna; 17 soilik falta dira.

Hurrengo ikastaroak antolatuta daude. Bana egingo da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan,

denak ere EAeko Herrizaingo Sailaren menpeko zentroetan. Horrela ariko dira ERNEk eta ELAk Administrazioarekin hitzartutako dezentralizazio akordioari jarraiki —CCOO sindikatuak ez zuen onartu—.

l a b u r r e a n

■ Erdialdeko Amerikarako ontzi bete giza laguntza aterako da Bilbotik bihar

Espainiako Unicef erakundeak eta DIA nazioarteko elikadura enpresak sinatutako hitzarmen bat dela medio, itsasontzi bete giza laguntza abiatuko da bihar goizean Bilboko Portu Autonomotik. Ituna horren arabera, DIA enpresak 55 milioi pezetaren balioko jantzi, elikagai eta etxetresnak jarriko ditu. Produktuak Honduras eta beste hainbat lurraldetara bidaliko dira eta garraio lanetan Kuhne & Nagel, Geolistics eta Altair enpresek lagunduko dute. Giza laguntza bereziki Mitch hurakanak eragin kalteak arintzeko bideratuko da.

■ Bi urteko kartzela zigorra eskatu dute bost antimilitaristarentzat, Loiolako kuarteleko kanoietan kondoia jartzeagatik

IAZKO martxoaren 7an, bost antimilitaristak ekintza bat egin zuten Loiolako kuartelean, eta han dauden kanoiak kondo handi batzuekin estali zituzten. Arantxa Mendia, Manu Ruiz, Oskar Lopez, Endika del Rio eta Xabier Huizik beren buruak kanoiei kateatu zizkieten ondoren. Ekintza haren ondorioz, bostak atxilotu zituzten eta kuarteleko ziegatan lau ordu eta Ertzaintzaren komisariako kalabojoetan beste bi ordu pasatu ondoren askatu egin zituzten. Ondoren, prozedura penala hasi zuten ekintza egin zuten pertsona horien kontra, eta egun amaituta dago. Coruñaeko epaitegi militarrek bi urteko kartzela zigorra eskatu du bakoitzarentzat.

■ Bi gizonen atxilotu dituzte Iruñean emazteari eta neskalagunari ustez txarrak emateagatik

ESPAINIAKO Poliziak bi pertsona atxilotu ditu Iruñean, ustez andreei txarrak emateagatik. Joan den astelehenan, Espainiako Poliziak Tomas L.M. 24 urteko gaztea atxilotu zuen, neskalaguna jipoitzeaz akusatuta. Neskak egin zuen salaketa baten ondorioz etorri zen atxiloteta. Neskak adierazi zuen Tomas L.M. azken sei hilabeteetan etxera joaten zitzaiola eta gorputzean eta buruan kolpeak ematen zizkiola, ordurako harremana etena zuten arren. Egun berean, Ramon Y.L. 39 urteko gizonen atxilotu zuen Poliziak, emazteari txar fisiko eta psikikoak emateaz akusatuta. Emakumeak jarri zuen salaketan adierazi zuenez, gizonarekin bizi izan zen 19 urteetan etengabe jasan zituen txar fisiko eta psikikoak.

■ Igandean ordubete aurreratu behar dira erlojuak

HURRENGO igandean ordubete aurreratu beharko dira ordulariak: goizaldeko 02:00etan 03:00ak jarri beharko dira. Aldaketa Europako Batasuna osatzen duten herrialde guztiek egin beharko dute, eta horrek 10.000 milioi pezeta aurrezte ahalbidetuko du (400 milioi libera). Ordu aldaketa egiten 1964an hasi zen, Petrolioaren Krisia izan zenean. Herrialde batzuek erabaki zuten ordulariak aurreratzea eguzkiaren argia hobeto aprobetxatzearen, eta argindar gutxiago kontsumitzearen.

■ Espainiako Sustapen Ministerioak laster hasiko du Nafarroako AHTren azterketa informatiboa

RAFAEL ARIAS SALGADO Sustapen ministroak atzo adierazi zuenez, bere ministerioak laster hasiko du azterketa informatiboa Nafarroatik pasatuko den abiadura handiko trenaren zatiari buruz. Ildo horretan, ziurtatu zuen Madril-Zaragoza-Bartzelona abiadura handiko trenak aukera emango duela Logroño eta Iruñera lotuneak egiteko. Era horretan, Madrildik Iruñerako bidea laburtu egingo da, eta denbora gutxiagoan egingo da. Hain zuzen ere, gaur egun bost orduetan egiten dena ordubete eta 20 minututan egingo da AHT eraikitzen dutenean.

■ Lanbide Heziketari buruzko I. Azoka inauguratu zuen Miguel Sanz lehendakariak atzo

MIGUEL SANZ Nafarroako Lehendakariak Nafarroako Lanbide Heziketari buruzko I. Azoka inauguratu zuen atzo Iruñeko Yanguas eta Mirandako lautadan. Ekitaldian Nafarroako Gobernuako Hezkuntza kontseilari Javier Markotegi eta Industria kontseilari Ramon Bulto ere izan ziren. Azoka egingo den gunea 2.000 metro koadroko lautada batean jarrita dago, eta Nafarroako lanbide ezberdinetako postuak daude. Gainera, Gobernuako Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak eta Industria eta Merkataritza Ganberak ere beren erakusmahaia dute.